MOBILIZAZIOAK GLOBALIZAZIOAREN KONTRA. Genoan jazotakoaren aurka protestak izan dira


IÑIGO AZKONA
Gazte batzuk Italiako kontsulatuko ateari kateatuta, Bilbon.

Protestak Iruñean eta Bilbon Italiako kontsulatuetan

Genoan jazotakoa salatu dutenen artean sei lagun atxilotu dituzte Iruñean

Haritz Urra | IRUÑEA

Sei pertsona kateatuta egon ziren atzo ia ordubetez Italiak Iruñean duen kontsulatuan, eta beste lau lagunek gauza bera egin zuten Bilbon, Italiako kontsuletxean haiek ere, Genoako istiluetan poliziak hildako Carlo Giulianiren heriotza dela-eta protesta egiteko. Hemen eta Munduan taldeak deitu zuen ekintzotara, G8koen goi bileran Poliziak izaniko jokabidea salatzearren. Donostian ere taldeko kideek idazkiak entregatu zituzten kontsulatuan.

Iruñean eginiko ekintzan, Espainiako Poliziak sei lagun atxilotu zituen, Italiako kontsulatuko balkoian kateatzeagatik. Ekintza gertatu eta berehala agertu zen Polizia, eta bertan bildutako jendea sakabanatu zuen.

Bilbon ere lau lagun kateatu ziren Italiako kontsulatuaren egoitzako atean. Ertzaintza hara joan zen, agenteek kateak hautsi egin zituzten, kateatutako gazteak identifikatu, eta handik gutxira aske utzi zituzten.

Iruñean, ostera, Poliziak borrak erabili zituen bertan bildutako jendearen aurka. Azkenik, beren borondatez ateratzea erabaki zuten gazteek. Segituan Espainiako Poliziak atxilotu egin zituen eta komisariara eraman. 20:00etan aske utzi zituzten.

Salaketa eta mobilizazioak

Iruñean, Hemen eta Munduan taldeko kideek banatutako idazkietan, komunikabide ofizialek horren berri eman ez badute ere, Genoako istiluen ondorioz «bi pertsona koman» daudela salatu zuten. «Italiako Gobernuak ez du informaziorik eman, agian bizitza artifizialki luzatu nahian, haien heriotza gertakarietatik urruntzeko».

Bestalde, Donostian elkarretaratzea egin zen G8koen eta Genoako gertakarien kontra, Batasunak eta Segik deituta. Joseba Alvarezek «G8koen hipokrisia» salatu eta globalizazioaren kontrako mugimendua gero eta gehiago hazten ari dela azaldu zuen, «kaltetuak gero eta gehiago direlako».

Hemen eta Munduan taldeak kontzentrazioetarako deiak egin dituzte gaur Bilbon, Arriagan 13:00etan, eta Iruñean, Italiako kontsulatuaren aurrean 19:30ean. Deialdi horrekin bat egin dute Batasunak, LABek eta Segik.


JOXE LACALLE
Poliziak borrak erabili zituen jendearen aurka Iruñean.



PABLO S. QUIZA
Batasunak eta Segik deituta, elkarretaratzeak egin ziren Donostian.

LABURREAN

BBVAk %24,1 gehitu ditu mozkin garbiak lehen sei hilabeteetan, 213.000 milioi irabazita

BBVA entitateak 212.955 milioi pezeta irabazi ditu aurtengo lehenengo sei hilabeteetan. Mozkin garbi horiek %24, 1 handiagoak dira iazko urte erdikoekin alderatuta. Entitateak «ohiko banku jardueraren bilakaera onari» egotzi dio emaitzen hazkundea, baita kostuen kontrolari eta Hegoamerikako banku filialen ekarpenari ere. Hala, Bilboko entitateak %25etik gorako hazkundea lortu du marjina guztietan.

Gasteizek 594 proiektu jaso ditu 104.000 milioi pezetaren inbertsioak laguntzeko

Gasteizko Industria Sailak 594 proiektu jaso ditu, Gauzatu eta AFI programen bidez 104.000 milioi pezetaren inbertsioak laguntzeko. Gauzatuk 104 proiektu jaso ditu, haietatik 42 Ezkerraldean eta Pasaiako Badian enpresak sortu eta 62 oinarri teknologikoa dutenak eratzeko. Proiektu horiek 33.480 milioiren inbertsioak eta 1.357 lanpostu aurreikusten dituzte. AFIrako 490 proiektu aurkeztu dira, 70.252 milioiren inbertsioak aurreikusita.

Bankuetako langileen hitzarmenak dakarren eros-ahalmenaren galera salatu du LABek

Bankuetako langileak urtez urte eros-ahalmena galtzen ari direla salatu du LABek. Arrazoia CCOOk eta UGTk AEB patronalarekin sinatutako 1999-2002 urteetarako hitzarmena da, soldata igoerak ez baitira inflazio tasara heltzen. Eros-ahalmenaren galera %0,9koa izan zen 1999an, %2koa iaz, eta aurtengo ekainean dagoeneko inflazioa soldata igoeraren parera iritsi da.

BURTSA. Giro ezkorra ez da oraindik erabat aldendu burtsatik

Ubide laua

J.B, Andueza


Bizkaiko herriaz gain uraren bidea ere bada ubidea. Urak bere bidean bezala, burtsak ere bezperako goranzko joera galdu zuen, behera eginez baino gehiago, bide laua hartuz. Nora eza. New Yorken emaitzen berri txarrak (edo) kaleratu zituzten zenbait enpresak (Lucent teknologia enpresak, besteak beste) eta zenbaki gorriak indartsuagoak izan ziren. Gurean, BBVAk %24 gehiago irabazi du aurtengo lehen seihilekoan eta %0,85 irabazi zuen akzioaren kotizazioak, 14,2 euroraino. Baina Ibex-35eko Telefonica (-%0,73), Repsol (-0,27), NHH (-%3,05) eta beste dozena bat akziok galerak izan zituzten, indizea lautzeraino.

DATUA

BSCHko (-%1,01) zuzendaritza orokorretik kanporatua dute Bilboko Luis Abril. Santander eta BCH bankuen bategiteko botere borrokak izan daitezke atzean, Abril Angel Korkostegiren sokakoa baita. Botin familiak gidatu asmo du Brasil eta Mexikon inbertsio garrantzitsuak dituen bankua.

Bilboko 2000 indizea

Diferentzia	Azken indizea	Aurreko indizea
+%0,04	1.446,11	1.445,58



Beste indizeak

New York (Dow Jones)*	10.283,40 (-%1,35)
Tokio (Nikkei)	11.883,25 (+%2,36)
Madril (IBEX-35)	8.373,80 (-%0,06)
Paris (CAC-40)	4.855,60 (-%1,15)
Londres (FTSE 100)	5.320,20 (-%1,57)
Frankfurt (DAX)	5.663,26 (-%2,22)
Milan (Mibtel)	25.225 (-%0,25)

* *Eguerdira arte*

Dibisen merkatua

Euro bat

Pezeta	166,386
Libera	6,55
Dolarra (EEBB)	0,8708
Libra Esterlina	0,6139
100 Yen (Japonia)	1,0807